

2022/2023 NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA GAUR-eko PROZESUA

(2021-11-11)

Egutegia

Nola egin zure eskaera GAUR-en 8 urratsetan

Zer egin behar duzu norakoren bat esleitzen zaizunean

Eskolarekin harremana

Egutegia

GAUR-eko eskaera eta esleipen-prozesuaren egutegi osoa, [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) argitaratuta dago.

Kontuan izan behar dituzun data garrantzitsuenak gogorarazten dizkizugu:

- **2021eko azaroaren 15etik abenduaren 9ra arte: eskaera** egiten duzu **GAUR-en**.
- **2021eko azaroaren 15etik abenduaren 15era: Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoan ematen duzu nahitaezko dokumentazioa** (irakurri arreta handiz gure webgunean argitaratuta dagoen *2022/2023 epeak eta prozedurak – Nazioarteko Mugikortasuna* dokumentua).
- **2022ko urtarrilaren 27an: 1. itzulian** esleitutako plazen **zerrenda** argitaratzen da.
- **2022ko urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra arte: 1. itzulian esleitutako plaza onartu edo ukatzeko epea (*)**
- **202ko otsailaren 16an: 2. itzulian** esleitutako plazen **zerrenda** argitaratzen da.
- **2022ko otdailaren 16tik 22ra arte: 2. itzulian esleitutako plaza onartu edo ukatzeko epea (*)**

(*) OSO GARRANTZITSUA: Ezarritako epean onartzen ez baduzu ala uko egiten ez badiozu, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko egiten diozula ulertuko du, eta prozesutik kanpo geratuko zara. Hau da, Nazioarteko Mugikortasuna gabe geratuko zara **2022/2023** ikasturtean. Gainera, penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere nazioarteko mugikortasuna eskatu.

Nola egin zure eskaera GAUR-en 8 urratsetan

1. urratsa - [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) dauden instrukzioak Irakurtzen dituzu arreta handiz.

2. urratsa - GAUR-en sartzen zara: **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak > Bilboko Ingeniaritza Eskola** atalean norakoei buruzko informazioa aurkituko duzu. Kontsulta-zerrenda honetan agertzen diren plazak eskatu ahal izango dituzu soilik. **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak** atalean eskaera egin ahal izango duzu.

3. urratsa - Egiaztatu itzazu zure datu pertsonalak, eta ziurtatu adieraziko duzun (edo jadanik grabatuta agertzen den) banku-kontuan titular gisa agertzen zarela. Titularra izatea derrigorrezkoa da edozein mugikortasun-beka jaso ahal izateko. Datu hauetako bat zuzendu edo aldatu behar baduzu, Eskolako Idazkaritzarekin harremanetan jarri behar izango duzu, haiek nola egin behar duzun esan diezazuten.

4. urratsa - Zure datu pertsonalak guztiak egiaztatu ondoren, sakatu "Eskaera berria" botoia eskaera egiteko. LA/BN/ERASMUS+ programak eskatu ahal izango dituzu, 8 aukera gehien jota. Aukerak zure lehentasunaren arabera ordenatu ahal izango dituzu, eta ezabatu ere bai. Ez ahaztu egonaldiaren iraunpena ondo hautatu behar duzula, mugikortasuna egin nahi duzun lauhilabetekoa adieraziz.

Nahiago dituzun zortzi norakoez gain, "Bestelako aukeretan interesatua" laukitxoa aktibatuta izango da, zuzendariordeak zureen beste aukera desberdin bat esleitzeko, zortzi aukerentako bat ez lortzekotan. Zortzi norako ez adieraztekotan, laukitxoa ez da aktibatuko. Aukera hori interesatzen ez bazaizu, desaktibatu behar izango duzu.

5. urratsa - *JARRAITU* botoia sakatuz hurrengo pantailara joango zara. Berriro, aukeren ordena aldatu edo aukeraren bat ezabatu ahal izango duzu. Iraunpena eta lauhilabetekoa aldatzea ere izango duzu. Adierazi *Azalpen memoria* atalean zein kurtsuan zauden matrikulatuta eta zer ikasi nahi duzun markatutako lehen aukeran. Eskolako Buddy-a izan bazara, adierazi hor lauhilabetekoa(k). Taldeko ordezkaria izan bazara, adierazi hor ikasturtea(k)

6. urratsa - *JARRAITU* botoia sakatuz hurrengo pantailara joango zara. Hemen zure eskaera berrikusteko aukera duzu, amaitu baino lehen. Prozedura osoa amaitzeko, sakatu *JARRAITU* botoia. Mezu bat agertuko zaizu, eskaera zuzenki egin duzula esanez.

7. urratsa - Behin eskaera amaituta, inprimatu behar duzu, Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan emateko, beste dokumentuekin batera. GAUR-ek automatikoki emandako mezu bat ere jasoko duzu zure posta elektronikoa,

8. urratsa - **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean zure eskaera ikusi dezakezu.

EZ AHAZTU: Beste Norako Batzuk programaren kupo orokorreko plaza bat eskatzen baduzu eta plaza horrek Hizkuntza eskakizuna badu, nazioartekoak.certiidiomas@ehu.eus helbidea bidali behar duzu ziurtagiria **abenduaren 26a baino lehen**.

GARRANTZITSUA: GAUR-tik emandako komunikazio automatiko guztiak zure @ikasle.ehu.eus kontura bidaliko direla. Normalean erabiltzen duzun kontura berzuzenduta badaukazu, gogoratu *ikasle* sarrera buzoia sarritan garbitu behar duzula. Bestela, garrantzi handiko informazioa galduko duzu. Eta gogoratu **zure eskaera egiteko jarraibide osoak** [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) daudela, zure eskura.

Zer egin behar duzu norakoren bat esleitzen zaizunean

GAUR fasean, bi itzulia dago norakoak esleitzeko

1. itzulia

Lehen itzulian plaza bat esleitzen bazaizu, plaza hori onartu behar duzu ala uko egin behar diozu ezarritako epean (2022ko urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra arte). Bestela, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko eigten diozula ulertuko du eta prozeduratik kanpoan utziko dizu. Hau da, ezin izango duzu 2022/2023 ikaturtean Mugikortasuna egin. Gainera, penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere nazioarteko mugikortasuna eskatu.

Esleitutako plaza onartzeko/plazari uko egiteko:

- 1. urratsa** – [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) irakurtzen dituzu arreta handiz plaza onartzeko/plazari uko egiteko jarraibideak,.
- 2. urratsa** – GAUR-en, sartu **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean eta hautatu esleitutako plaza. Behean, bi botoi aktibatzen dira: *Uko egitea* eta *Onartu baldintzak*.
- 3. urratsa** - Sakatu botoi hauetako bat (*Uko egitea* ala *Onartu baldintzak*).

- *Uko egitea* botoia sakatuz gero, uko eigten diezu norako horri eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden guztiei. Kontuz, uko eigten ari zaizun norakoa zure lehenengo aukera bada, norako guztiei uko egingo diezulako. Hau da, **ezin izango duzu egin nazioarteko mugikortasuna 2022/2023 ikasturtean**.
- *Onartu baldintzak* botoia sakatuz gero, esleitutako norakoa onartzen duzu, eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden beste guztiak kanpoan geratuko dira.
 - Esleitutako eta onartutako norakoa zure lehen aukera ez bazen, 2. itzulian zure lehentasun-hurrenkeran onartutakoaren gainera dagoen norako bat esleitzeko aukera dago.
 - Esleitutako eta onartutako norakoa zure lehen aukera bazen, ezin izango zaizu esleipena hobetu, eta norako hoir behin-betikoa izango da.

2. itzulia

Bigarren itzulian plaza bat esleitzen bazaizu, plaza hori onartu behar duzu ala uko egin behar diozu ezarritako epean (2022ko otsailaren 16tik 22ra arte). Bestela, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko eigten diozula ulertuko du eta prozeduratik kanpoan utziko dizu. Hau da, ezin izango duzu 2022/2023 ikaturtean Mugikortasuna egin. Gainera, penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere nazioarteko mugikortasuna eskatu.

Esleitutako plaza onartzeko/plazari uko egiteko:

- 1. urratsa** – [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) irakurtzen dituzu arreta handiz plaza onartzeko/plazari uko egiteko jarraibideak,.

2. urratsa – GAUR-en, sartu **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean eta hautatu esleitutako plaza. Behean, bi botoi aktibatzen dira: *Uko egitea* eta *Onartu baldintzak*.

3. urratsa - Sakatu botoi hauetako bat (*Uko egitea* ala *Onartu baldintzak*).

- *Uko egitea* botoia sakatuz gero, uko egiten diezu norako horri eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden guztiei. Kontuz, uko egiten ari zaizun norakoa zure lehenengo aukera bada, norako guztiei uko egingo diezulako. Hau da, **ezin izango duzu egin nazioarteko mugikortasuna 2022/2023 ikasturtean**.
- *Onartu baldintzak* botoia sakatuz gero, esleitutako norakoa onartzen duzu, eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden beste guztiak kanpoan geratuko dira.

IMPORTANTE: Todas las comunicaciones automáticas emitidas desde GAUR serán enviadas a tu cuenta *@ikasle.ehu.eus*. Si la tienes redirigida a la cuenta que utilizas de manera habitual, limpia la bandeja de entrada de *ikasle* a menudo, o perderás información importante. Y recuerda: las **instrucciones completas para renunciar o aceptar la plaza adjudicada** están disponibles en la [página web del Vicerrectorado de Relaciones Internacionales](#)

Eskolarekin harremana

Todas las cuestiones y dudas relacionadas con tu intercambio universitario debes enviarlas a outgoing.eib@ehu.eus. También puedes ponerte en contacto con nosotros en el teléfono 94 601 8228, o acudiendo a la Oficina de Relaciones Internacionales de la Escuela (local P1E2) dentro del [horario de atención al público](#).

RRR!!!.EIB